



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Bi monje, bi zeta-har eta bi inperio

Txina, duela 4.700 urte. Si-Ling-Chi printzesari zeta-har bat erori omen zitzaion te berotan eta hala deskubritu omen zuen zeta egiteko prozesua. Konfuziok jasotako kondaira honek adierazten du Txinan Antzinaroan hasi zirela zeta ekoizten eta mendetan eutsiko ziotela sekretuari.

VI. mendean Erdialdean, zeta produkturik preziatuenetakoa zen Europan, eskaera gora egiten ari zen etengabe eta zetaren merkatuak, ekoizleak aberasteaz gain, Zetaren Bidean jarduten zuten bitartekariei ere etekin oparoak ematen zizkien. Justiniano I.a Bizantzioko enperadoreak etekinen zati bat nahi zuen eta, horregatik, bi monje bidali zituen Txinara zetaren sekretuaren bila.

Bi urteko bidaia luze eta neketsuaren ondoren espioitza industrialia egitera bidalitako bi monje kristauak misioa beteta itzuli ziren inperiora. Bi zeta-har lapurtu eta kanabera batean ezkutatuta eraman zituzten gortera. Beste bertsio batzuk diote har gehiago izan zirela lapurtutakoak eta beste objektu batzuetan gordeta eraman zituztela. Kondairak kondaira, sekretua lapurtzea lortu zuten eta Bizantzion zeta ekoizten hasi ziren, egungo Libano eta Siria inguruetan masustondoak ederki hazten direla aprobetxatuta; zeta-harrez gain, masustondoak ere ezinbestekoak baitira zetazko oihalak egiteko.

Zetaren Bidea beste ia mila urtez izango zen merkataritza bide nagusietakoa,



BOSTON MUSEUM OF FINE ARTS

VI. mendean bizantziarrak zeta ekoizten hasi ziren, prozesuaren sekretua mende luzez ezkutuan izan zuten txinatarrei lapurtuta.

gainbehera egin baino lehen. Oihalez gain, beste salgai asko eramaten zituzten Asiatik Europara. Baina VI. mendean Erdialdean, Bizantzioko gobernua zetaren ekoizpen propioa kontrolatzen hasi zenean, Txinako zeta esportazioek nabarmen egin zuten behera. Eta, horrekin batera, persiar merkatarien jarduna eta etekinak ere asko jaitsi ziren.

Bizantzio eta Persia elkarren aurkako gerran aritu ziren 564 urtetik 642ra. Elkarren aldamenean zeuden bi inperioak hedatzen ari ziren eta talka egitea saihestezina zen. Justiniano boterera iritsi ze-

nean, hainbat neurri hartu zituen ekonomia –eta, ondorioz, armada– indartzeko, eta Khosrow I.a persiarrak ere oparoaldia ekarri zion bere inperioari. Gerra piztu baino hiru urte lehenago, 561ean biek bakea sinatua zuten eta, itxuraz, inperioaren arteko mugak finkatu eta onartu zituzten.

Faktore askok izan zuten eragina gatazka horretan, baina, besteak beste, bi monjek lapurtutako har txiki haiek eta sekretu handi horrek batzuei bitartekoak eta besteei motiboak eman zizkien bi inperioen arteko gerra hauspotzeko. ●



BRITISH MUSEUM

Idatzitako lehen musuak

Musuei buruzko lehen erreferentziak hinduek duela 3.500 urte idatzi zituztela uste genuen, baina daniar ikerlari talde batek *Science* aldizkarian jakinarazi duenez, duela 4.500 urte sumertarrek jaso zituzten lehen erreferentzia esplizituak. Idazkera bera hantxe asmatu zuten, Mesopotamian, duela 5.200 urte inguru, nagusiki datu administratiboak jasotzeko.

Pixkanaka, beste gai batzuetara zabaldu zuten idazkera 700 urte geroago, musuak hizpide izateko. Sexu praktika gisa nahiz senideen eta lagunaren arteko afektu adierazle moduan ageri da testuotan. Baina Troels Pank Arbøll ikerlariak argitu duenez, “ez dugu esan nahi musuak han eta orduan asmatu zituztenik. Jatorria historiarean bilatu behar da”. ●